

Jainko txiki eta jostalari hura ikuskizuna abenduaren 12an Igorren

13. orrialdea

Igorreko Ziklo-krosa hilaren 7an

Hilaren 7an izango da Igorreko XXXVIII. Ziklo-krosa. Olabarriko zirkuituan inoz baino ziklo-krosari gehiago espero dabe antolatzaileak, 490 guztira. Federazio Kopako lasterketea eta Euskadi Sari Nagusia izango da aurten la bostehun partaideen artean, Naia Alzola, Aitor Henandez, Kevin Suarez eta sortu barri dan Murias taldeko hiru txirindulari egongo dira Olabarriko zirkuituan. 11. orrialdea



Heavy metal jaialdia antolatu dabe Zeberion hilaren 12rako

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

219

2014ko abenduaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hizkuntza ohituretan eragiteko helburuagaz hainbat ekitaldi

Abenduaren 3a de Euskerearen Nazinoarteko Eguna da eta urtero lez, Arratian hainbat ekitaldi egingo dira eguna ospatuteko.

Ekitaldiok euskerearen erabilerearen aldeko konzientziazinoa eta hizkuntza ohituretan eragitea daukie helburu. Euskerea erabilten dan leku edo egoeretan, ohitura hori sendotu eta erabilten ez danetan, euskerearen erabilerea bultzatuteko, hain zuzen.

Hori dala eta, antolatuko ekintzak epe luzeari begira dagoz kasu askotan; Igorren euskera plan barria aurkeztuko dabe eta Euskeraren Eguneko ekitaldiarik garrantzitsuena, aurkezpen ekitaldia izango da. Zeberion, herritarrak udalagaz erabilten daben hizkuntzen neurketea egin dabe eta hortik urte osora begirako plangintza egin dabe. Horren, horren barri

emoteko etxeetara bananduko dabez diptikoak. Lemoan, merkataria udalagaz akordio bat sinatuko dabe euskerea bultzatzeko konpromisoa hartuz.

Etorkizunari begira, gazte eta umeen erabileran dago gakoa eta herri askotan, umeak izango dira protagonista nagusiak. Lehiaketak eta sari banaketak antolatu dira, Bedian, Areatzan eta Zeanurin.

Dana dala, eguna bera ospatuteko ekintza ludikoak be badagoz herritar guztiai zuzendutakoak. Horreetako batzuk aitatutearren, Zeanurin *Amodiozko ipuinak* ipuin musikatuakaz gozatzeko aukerea egongo da; Lemoan, Xabier San Sebastian kantariaren kontzertua eta Diman, sorgin jantzea. 5. orrialdea



ARRATIA

Arratia garatuteko plan estrategikoa diseinetako jardunaldiak

Egoera sozio-ekonomiko larriaren aurrean, eskualdeko etorkizuna bermatuko dauan plan estrategikoa diseinatu gura dabe Dima, Igorre eta Lemoako Udalak, eragile sozial, politikiko, sindikal, ekonomiko eta norbanako herritarrakaz batera. Horretarako, jardunaldi batzuk antolatu dabez hilaren 11 eta 17 eta urtailaren 15 eta 22rako. Han, tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena egingo dabe hainbat adituk lehenengo hiru egunetan eta laugarrenean, Arratia garatzeko planaren oinarriak eta helburuak marrazteko ariketea egingo dabe partaideak. 5. orrialdea

ZEANURI

LOMCEren aplikazioa aztertu eben

Zemendiaren 20an, Rut Martinez, EAJ-PNVko senataria eta Zeanuriko hezkuntza zinegotzia; Jabi Lamadrid, Zeanuriko eskolako zuzendaria; eta LAB eta STEE-EILAS sindikatuko ordezkariak, LOMCEk zelan eragiten dauan hezkuntza izan eben berbagai. Aurten, LOMCE Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailan, eta Lanbide Heziketan hasi da apliketan. LOMCEren eragina ahalik eta txikiena izan daiten, Zeanuriko eskolan lege babesa daukien ebatzi batzuk hartu dabez eta kompetentzietan oinarritutako metodologia erabilten jarraituten dabe. 7. orrialdea

IGORRE

Arantzarte taldearen berrogeigarren urteurren jaia abenduan

Berrogei urte bete dira aurten Arantzarte jantza taldea sortu zanetik eta hori ospatuteko jaia antolatu dau taldeak hilaren 13rako. Gainera, 27an jantza saio bat eskeiniko dabe eta 21ean Bilboko Txistu Banda egongo da. Herritarrakaz ospatu gura dabe taldekoak data garrantzitsu hau eta Kiñu Gaztetxean bazkaria egingo dabe. Kalejirea, abesti eta jantza herrikoiak, kantu pintxo poteoa eta MG taldearen kontzertua be egongo dira 13an. 8. eta 9. orrialdeak

VOGUE ROXY GUESS POLICE GOLA CEBE Silhouette V&L Ray-Ban

Varilux kristalen promozio berria

Abenduaren 31ra arte!!

Erdu eta galdetu baldintzak!!

Zure 2. kristal pareta opari

VARILUX

Olaxte OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaxteoptika@hotmail.es

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ANTON LANDAJUELA (1914-1982)

Atzen zenbakietan Timoteo Atutxa igorretzarraren historia gogora ekarri izan dan moduan, oraingoan Anton Landajuela Barreneixearen gogoeta dakargu. Aurten, 2014ko abenduaren 4an beteten dira ehun urte Anton Landajuela jaio zala Igorren. Gizon biak herri berekoak izateaz gain, ideologia abertzalea eta Gerra Zibilaren ondorioak be sufridu ebezan. 1936ko gerreak harrapatu eban Landajuela soldadiska egiten Iruñean. Nafarroako uriburua laster agertu zan nazionalen alde, Mola jeneralaren agindupean. Halabarrez, Landajuela eta kuartelean egozan beste soldadu guztiak nazionalen alde burrukan egin behar izan eban. Nafarroako iparraldetik

lehenengo, eta gero Gipuzkoan ibili ziran. Mugatik hur ebilenean, desertau eta Iparraldeko kostaldera, Hendaiara pasau zan Landajuela. Ez zan nasai egoteko gizona, eta abertzaleak kontaktoa egin ostean, gudarien armadan enrolau zan, hasieran "Arratia Konpainia"n, eta geroago teniente graduaziongaz "Rebelión de la Sal" batailoian. Hainbat ekintza militarretan parte hartu eban, atzenean nazionalak atxilotu eban Kantabrian. Orduan hasi zan Antonen bizitzan beste kapitulu bat: kartzela. Kantabriako Santoña herrirean ondoan dagoan El Dueso, Burgosko uriburuko kartzela, eta Bilboko Larrinagako kartzelak izan ziran Landajuela ezetu ebezanak. Heriotza zigorra kondenea lepoyratu eutsien, deserzioa eta aretaren alde burruka egin ebalako. Kartzelan egondako denporan

egunero pasetan ziran pasadizoak idazten zituan Landajuela koaderno batean. Bost urte egin eta gero

kartzelan heriotza zigorretik libratu zan, eta urtekarrenean, 1979an hain justu, Bilboko portuan behar



egin eban lekutik jubilaue zanean, memorian gordeta eukazan gaztendenporako gogoetak eta kartzelako idazkiak errekerperau ebezan. 100 orrialde inguruko lana egin eban. Baina 1982. urtean hil zan Landajuela. Urteak joan urteak etorri, Antonen familiaren kolaborazioari esker, "Zer" aldizkari euskaldunak publikatu edo argitara emon ditu atzen urteotan gordeta gelditu zan Anton Landajuela idazlana. Idazle edo artikulista moduan, aitaruriko "Zer" eta "Agur" aldizkari euskaldunetan, atzen honetan, "Arratia" izeneko zutabeen kolaborau eban. "Euskerazaleak" deitutako taldekide lez be nabarmendu zan frankismoaren denpora latzetan euskerearen alde egiten Bilbo aldean. Amaitzeko, eskertu gura dogu hemendik Landajuela moduko pertsonen konpromisoa eta lana.

Angel Larrea Beobide

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 1etik 7ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 8tik 14ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 15etik 21era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehen, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagoraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Ez da pasetako sasoia

Laissez faire et laissez passer, le monde va de lui même. "Itxi egiten, itxi pasetan, mundua bakarrik doa", esaldi entzutetsu hau XVIII. mendekoa dogu.

Euri asko egin dau ordutik hona. Orain euri hori azidoagoa da.

Vincent de Gournay, printzipio honen sortzaileak, uste eban askatasun ekonomikoak eta merkaduenak, askatasun personala be ekarriko ebala.

Baina itauna da, noren askatasuna?

Finantza gizon eta euren morroi politikoenak duda barik. Horreek, euren neurria egindako munduan, aske dira. Bitartean, erakunde publikoak banka handiaren agindupean ipintez dabiz, gero eta nabarmenago.

Horren ondorioz, herritarren gehiengoaren pobretze orokortua lortzean dabe. Personoi bizi-baldintza duinak izatea ahalbidetzen deuskun lanerako eskubidea galarazoz, akzinodunen dibidenduak hobetuteko asmoz. Langabezia eta prekariedadeagaz lan-kostuak murriztu gura dabez, sarri askotan Vincent de Gournayren sasoiko

esklabotzara bueltetea gura ez daben be zalantza sortzean deuskuelarik.

Argi dago, ekonomia ez dago personeren zerbitzura, merkaduaren baina.

Guk merkaduaren orde, personak osotutako gizartean pentsau behar dogu, alegia, zelan hobetu personeren bizimodua.

Horren aurrean, ezinbestekoa da bestelako balore batzuetan oinarritutako garapen ekonomiko eta soziala ehuntzea; bildur eta nagiak astindu eta ekiteko alkarlanari. Prozesuan ikasiz eta norberak dakiana erakutsiz. Arratia gaitasun guztien batuketegaz eregiz.

Izan be, funtsean, lurralde garapeneko prozesuaren helburua jentearen bizimodua hobetutea da eta horretarako, garrantzitsua da gizarte zibilak eztabaidan parte hartzea momentu guztietan. Lurralde garapenak jentearen ongizateari begiratzen deuto eta erakunde, kultur, politika eta ekonomia dimensioak ditu eta gizarte eta ingurugiroa be kontuan hartzean ditu.

Horretarako, demokrazia partehartzailearen eskutik, lurralde garapenaren prozesuaren motorra talde ilusinoak izan behar dau.

Tokian tokiko sinergiak baliatuz aukera barriak sortzeako sasoia da,

auzolanean eskualde garatu eta ja-sangariago bat eregiteko. Ez egin paso, parte-hartu eta garatu Arratia.

GALDER OLIBARES

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Elai



Hegazkada arineko hegazti hau denpora ona egiten hasten danean, udabari aldean, agertzen da gure artean. Etxe-atarietako hage edo sabaietan eta teilatu-hegaletan egiten ditu habiak txori txiki eta zuri-baltz honek (eláya, agoskatuta; eléya, Lemoan jaso). Batuaz, enara esaten da. "Elaien moduan" esakerea erabilten da baten bat oso-oso arin dabilela esateko. Herri sinismen zabaldua izan da elaiak ezin dirala tragau, insektu jangale onuragarriak diralako.

ERETXIA



JOSEP EGEEA

Katalunia-Europa

Batzuk hazi ginan, geureak moduko nazioentzako Europa berme bat izango zalakoan, bere babesean dano bardin egongo ginalakoan, geuretzako aterkin bat izango zan ilusinoagaz, ilusino inozoagaz. Eta Herrien Europa haregaz ilusionau ginan, pentsatuz, muga artifizialak desagertu eta Catalunya Nord eta hegoaldeko katalanak, baita Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal herritarrak be, gure arteko hartu-emonak sendotuteko espazio bat izango zala. Idea ona zan, baina idea guztiak legez, ez dau ezertarako balio edukiz beteten ez bada, eta horretan Europak erakutsi dau Espainiaren antza handia daukala; izan be, Europa ez da berezko erakunde politiko bat, beste erakunde batzuen gehiketea baino, gero eta gehiago, euren diskursoa kontrakoa izan arren, euren buruak babesteko eta errezelogaz jokatzan daben erakunde gehiketea da, hain zuzen be.

Holan, katalanok, sinistu ezinik ikusi dogu Europak beste aldera begiratu dauala eta entzungor egin dauala herri bakezale baten gehien giza mobimentu ereduariaren aurrean, izatea baino ez dauana eskatzen, askatasunez bere burua adierazo gura dauana, bere izatea eta bere etorkizuna ebazteko gaitasuna errekonozidutea gura dauana. Era ironiko baten, bere herritarren oinarritzko eskubideak defendidu beharrean, Europak amenazau egin gaitu bertatik botateagaz, Espainiak egindako amenazuak nahikoak ez balira legez. Honek erakusten dau barriro be, eregiten dagoan Europa ez dala bere herritarrena, Estadua baino. Hau dezepzinoa!

Erredakzinoan itzulia

LUMATUTEN

GONTZAL
MENDIBILEuskerearen
sekretu askoren
giltzea

Argitaratu barri dan Bittor Kapanagaren lanen liburua, gure antxinateari buruzko dokumentu ikaragarria daukagu.

Oraindino be ezezagunak dira eta ezkutuan dagoz Kapanagaren esanak eta lanak. Otxandioztarren ustetan, euskereak bere aztarnetan dakarguna, antxinateko bizikera baten adierazpena da.

Asmakizun guztiak beti erroetara joan beharra daukiela inoan Kapanagak. Kanpotik, azal hutsean bizi garan garai honeetan, Bittor oinarriak aztertzen eabilen. "Hizkuntza bakotzak bere mezua daroa barruan eta euskereak gauza askoren mezua ekarten deuskuz, euren artean pentsakereari eta erlijinoari buruzkoak".

Noraino erabilten ete doguz hizkuntzak emoten deuskuzan bideak? Noraino erabili geinkez? Bittorrek logikea erabilten eban

ardatzat eta itaunketa zuzenentzako erantzun zehatzak eukazan. "Ohitura txar asko dagoala uste dot eta honeen artean esan beharra daukat iraindu egiten gaituala gaurko sistemeak".

Gerotxoago jarraituten dau: "Eta gauza batez ohartuten naz: gure jakintsu gehienak erdera gehiegi dakiela, erderen estrukturaz (edo antiestrukturaz) kutsaturik dagozala eta, izan be, horrexegaitik ezin dabela euskerearen arazoa argitu edo erabagi".

Bittorren "erdera gehiegi" horretan, badakit batez be latina sartuten dala, sarri entzun deusat eta gitxi gorabehera holango salaketa hau: "Zuek, latinkumeok, Jaungoikoaren berbea latinez ikasi zenduen eta gero pentsetan dozue latina bera dala Jaungoikoa".

Euskerearen aztarnai eta bideai buruzko azalpen ugari esan euskuzan otxandioztar hizkuntzalari pentsalariak, orain eta geroan balio handikotzat hartu beharko gendukezanak.

Aspaldi bateko pentsakerearen euskal senari lotuta egon izan zan arketipoa genduan Bittor. Euskerearen zuztarretan eta izatasunean murgildu zana eta berben esangurak maisutasunez irakatsi euskuzana. Bittorren ustetan, gizarte patriarkaletik matriarkalera pasautako arrastoetan gabiz. ARetik URerako joanean. "AR (Arra). UR(emea): Urruza".

Honetan guztian jardun eta sakondu gura dauanak, oraintxe plazaratutako Bittor Kapanagaren lan guztien lehen tomoa dauka eskuragai.

ZERTZEAN



PELLO ARTABE



BEGI TXINDORRA

Beste aramu tela bat... misterioa argitzen doa. BEGITUREN 216. zenbakian, Arteen topautako artilez egindako aramu sare bat ekarri genduan Begi Txindorrera. Orduan, Louise Bourgoisen lanak gogora ekarrita, ea telearen esangurea amatasunaren sinboloa edo maitasunarena ete zan itauntzen genduan.

Misterioa argitzen doa.

Oraingoan Areatzan ikusitako aramu sare more honen esangurea ondoan dagoan Mari Sor kopin feministek argitzen dau. Aramu sare Areatzako Eskulan taldeak egin eban andrakanako indarkeria sexistearen kontrako egunaren harira egindako Martxa Morearen helmugan ipinteko. Eta tela honek duda barik, biolentziagaz amaituteko andren alkarlana adierazo gura dau.

Hari solte batek ez dau gauza handirik lortuten, sareak, barriz, bizi-raupena.

Sareak egin behar doguz andren artean, baita andren kontrako indarkeria bako mundu bat gura daben gizonetakoakaz be.

Argazkia: Belen Lopez.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbako 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

ARRATIA

Euskerearen erabilera bultzatzeko eguna



Igorren euskera plan barria aurkeztuko dabe.

Abenduaren 3a da Euskerearen Nazinoarteko Eguna.

Arratiako herri guztietan, euskerearen erabilera bultzatu

gura da eta helburu hori dituen ekitaldiak antolatu dabez

herrietan. Igorren Euskera plan barria aurkeztuko dabe Kultur

Etxean, Zeberion udalagaz hartu-emonetan euskerearen

erabilerearen emoitza bananduko dabez etxeetan, Areatzan

eta Diman esaera zaharrak ezetuteko jokoak antolatu ditue.

Abestiak, bideoak, bertsoak, ipuinak... euskereak forma asko

hartuko ditu egun honetan, euskereagaz gozatuteko.

Erredakzioa

Arantzazu

Arantzazun lau metroko kartel batek gogora arazoko deutse herritarrei Euskerearen Eguna dala, eta euskeraz egiten animauko ditu. Horrezaz gainera, udagoieneko lemea ipiniko dabe kartel guztietan.

Areatza

Zemendiaren 29an hasi ziran Areatzan Euskera Eguna ospatuten. Errefrau Poteoa egin eben egun horretan. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia bertsolariak, esaera zaharren parodiak egin eta partaideak esaera asmatuten saiatu ziran. Giro ederra egon zan eta hainbat jentek hartu eban parte.

Euskerearen Egunean, umeen esaera zaharren sari banaketea egongo da plazan, arrastiko seiretan. Zemendiko lehenengo barikutik hasita, barikuro, herriko lekuren baten ostondutako sobre gorri bat topau izan behar dabe umeak. Han, asmakizun edo esaera zahar bat topau dabe. Esaera gehien esangurea asmatu dabenak saria izango dabe. Sari banaketearen ostean

txokolatea egongo da. Eta hilaren 5ean, barikuan, Kantu Bira trikitalariak egingo dabe Areatzan.

Dima

Areatzan legez, Diman be esaera zaharrak bultzatu gura dabez. Hori dala eta, "Baietz 301 esaera zahar topau" izeneko ekimena ipini dabe martxan. Euskerearen Eguna baino lehen, esaera zaharrak Udaleko kultura arlori bialdu behar dabez.

Euskerearen Egunean, herriko alkarteak euskerearen ustrukua pintauko dabe frontoi txikian. Ostean, sorgin jantza, esaera zaharrak eta mezua.

"Egiten dogunak, egiten gaitu" dinoe Diman.

Igorre

Igorren, herritarren parte hartzeagaz diseinutako Euskera plan barria aurkeztuko dabe.

Igorreko Euskera Teknikaria dan Amaia Arauzok jakitera emondakoaren arabera, 250 herritarrek hartu dabe parte euskera plan barriaren diseinuan, horretarako antolatu diran parte-hartze saioetan eta Inbiu egunean. Saio horreetan euskerearen inguruko

hausnarketea egiteaz gainera, plan barria diseinetako ekarpenak jaso dira eta bide batez, "herritarrek euskereagaz inpliketako eta aktibetako modu bat be izan da".

Prozesu parte-hartzaile honen emoitzea, abenduaren 3an ikusi ahal izango da, euskera plan barriaren aurkezpen ekitaldian, 19:30ean, Kultur Etxean. "Bideo emondia, kankak, bertsoak, eta zelan ez jan-edana egongo da hurreratuten diran guztientzat".

Lemoa

Lemoan, merkatariak udalagaz euskera sustatzeko akordioa sinatuko dabe. Irakurleen txokoa be herriratuko dabe. JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak hormairudia margotutea, flashmoba, musika eskoleagaz batera abestiak eta beste ekintza batzuk antolatuko ditu.

Marimendi taldekoak Burnaby mendira egindako espedizioa kontetan dauan proiektzioa emongo dabe Jubiladuen Etzeko goiko aretoan, zortziretan. Bertan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako argazki lehiaketea be egongo da.

Eguna amaituteko Xabier San Sebastian kantaria egongo da Jubiladuen tabernan, bederatzi t'erdietatik aurrera.

Aurtengo leloa hauxe da: "Jente txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, herria alda dezake".

Zeanuri

Zeanurir, eskola-umeak Euskerearen Eguneko protagonistak izango dira eta eskolan izango dira ekintza gehienak. Holan, goizean euskal kanten karaokoa, grabaketea agozkotasuna bultzatuteko eta talo tailerra egongo dira, beste gauza batzuen artean. Ipuin Lehiaketearen sari banaketea be egingo dabe eskolan, ipuin kontalari batek animauko dau ekitaldia.

Arrastiko zazpiretan, Kultur Etxean, ipuinak barriro be, baina oraingoan nagusientzat, *Amodiozko ipuinak*, hain zuzen be. Maite Arresek kontauko ditu ipuinok eta Mau Ziemkiewiczek ipiniko deutse musikea.

Zeberio

Euskerearen Egunean hasita, etxe guztietan diptikoa bananduko da. Han, herritarrek udalagaz dituen hartu-emonetan erabilitako hizkuntzearen neurketearren emoitza jasoten dira. Zeberioztar gehienak erabilten dabe euskera udalagazko agozko hartu-emonetan, baina erdiak baino gitxiagok idatzizkoetan.

ARRATIA

Arratia garatuteko plan bat egiteko jardunaldiak

Erredakzioa

Dima, Igorre eta Lemoako Udalak, eragile sozial, politiko, sindikal, ekonomiko eta norbanako herritarren ekarpenak jasoteko jardunaldiak antolatu dabez, Igorreko Kultur Etxean abenduaren 11n eta 17an eta urtailaren 15 eta 22an.

"Ez dago etorkizuna bermatuko dauan plan integral bat Arratiarentzat eta beharrezkoa da. Beharrezkoa dogu Arratiako egoera errealetik abiatu eta eskualde honen biziraupena bermatuko dauen plan estrategiko orokor bat. Eskualdeko egoera sozio-ekonomiko larriaren aurrean, etorkizuna bermatuko dauan plan estrategikoa diseinetzea daukagu helburu" dinoe antolatzaileak. Euskal Herriko eta mundu zabaleko beste esperientzia batzuk ezetuko dabez parte hartzean dabenak. Abenduaren 11an, Sakantzen Sarea eta Tolosaldeko esperientziak emongo dira jakitera. Bai Sakanan eta bai Tolosan, krisialdiari aurre egin eta eskualdearen garapenerako sortu dabezan proiektuez berba egingo dabe Joseba Garmendia, EHUko irakaslea eta Ibai Iriarte, Tolosaldeko alkateak.

Abenduaren 17an, mundu mailan izan diran esperientzien inguruan berba egiteko Paco Alburquerque, Madrileko Unibertsitate Konplutensean, Ekonomia eta Enpresan doktorea eta Europa eta Amerikan, tokiko garapeneran erreferentzia dana egongo da Igorren.

Urtailaren 15ean, Azaro Fundazioa, lehentasunez Lea Artibai eskualdean enpresa barriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortea

sun hobetutea helburu daukan erakundea gidatzen dauan Ainara Basurko izango da.

Eta atzenengo egunean, urtailaren 22an, aurreko jardunaldietako informazioa bilduta, eskualdearen garapeneraren oinarriak jartzeko prozesu parte hartzailea egingo da.

Jardunaldiak, arrastiko 18:30etik 20:30era izango dira.

Egitaraua

Abenduak 11, eguna

Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena: Tolosaldea Garatzen. Hizlaria: Ibai Iriarte, Tolosaldeko alkatea.

Sakantzen Sarea. Hizlaria: Joseba Garmendia, EHUko irakaslea eta Sakantzen Sareako kidea. Ideak partekatzekeo tartea.

Abenduak 17, eguztana

Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena. Hizlaria: Paco Alburquerque. Ekonomia Zientzietan eta Enpresan Doktorea, Madrileko Unibertsitate Konplutensean. Ideak partekatzekeo tartea.

Urtailak 15, eguna

Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena: Azaro fundazioa. Lea Artibai eskualdeko garapenera sozio-ekonomikorako agentzia. Hizlaria: Ainara Basurko. Azaro Fundazioako garapenera agentziako teknikaria. Ideak partekatzekeo tartea.

Urtailak 22, eguna

Elhuyar Fundazioaren eskutik Arratia garatzekeo planaren oinarriak eta helburuak marraztekeo ariketa parte-hartzailea.



ARRATIA

Jostailu barriak batzeako kanpaina abiatu dau Gurutze Gorriak

Jostailuak jasoteko kutxa.

Erredakzioa

Olgetan ibiltea umeen oinarrizko eskubidea denez, Gurutze Gorriak Bizkaia mailan jostailu barriak jasoteko kanpaina abiatu dau. Egoera ekonomikoa dala eta, euren seme-alabai jostailuak erosi ezin deusezan familien artean bananduko dira. Igorreko bere lokalean jasoko ditu jostailu barriak Arratiako Gurutze Gorriak. Gurutze Gorriako Idoia Zuloa-

gak jakinarazotakoaren arabera, Arratian jasoten diran jostailuak Arratiako familientzako izango dira. "Gertatu daiteke, Arratian, demagun, 15 familia atendidu beharra eta behar diran beste jostailu ez batzea. Kanpaina Bizkaia mailan da eta ez da inor geratuko atendi- du barik".

Kolaboretea erreza da. Jostailu bat erosi eta Gurutze Gorriak ipinitako kutxetan entregetea baino ez da. Bilboko Ribera azokan, hilaren 12an; Megapark-eko Toysrus-en hilaren 12-13, 19-20 eta 26-27an; Corte Ingles-aren ondoan hilaren 12 eta 13an eta Gurutze Gorriako bulegoetan egongo dira kutxak. Igorre Agirre Lehendakari kalean dago Gurutze Gorriaren bulegoa. Arratiako boluntarioak Megapark-eko Toysrus-en egongo dira.

Jostailuen ezaugarriak

Jostailuak barriak izan behar dira, ez sexistak eta ez belikoak. Bizkaiko Gurutze Gorriaren aurreko kanpainenari esker, 401 familiako 751 umek jaso eben jostailuren bat.

IGORRE

Igorreko misinolariai lagundutako tonbolea**Erredakzioa**

Igorreko Agirre Lehendakaria kalean, Sergio tabernaren ondoan ipiniko dabe aurten Peru eta Kongoko garapen proiektu bitan lagundutako tonbola solidarioa. Abenduaren 18, 19, 20 eta 21ean egongo da zabalik eta bertan batzean dan dirua Perun Juanita Agirre eta Kongon Maribel Egiluz diran misinolariai bialduko jakie herrialde

hareetako garapen proiektuetan lagundutako.

Urte osoan andra talde batek egin eta jasotako gauzak zozketatuten dira bertan eta balio handiko artisa- u lanak lortu daitezke, zortea izan ezker, euro baten truke. Atzenengo egunean otzara batzuk zozketatzen dira eta zozketa honetan parte hartze- ake boletoa, saridunak izan zein ez, gordetzeko gomendatzen dabe antolatzaileak.

ARRATIA

Igazko antzera edo okerrago ikusten dabe euren ekonomia gure irakurleak**Erredakzioa**

Gure inkesteari erantzun deusn irakurlearen % 75ek euren ekonomia- ren egoera, orain urtebete eukanaren bardin antzekoa dala uste dau. % 25ek, barriz, okerrera egin daua.

Hori dala eta, orain gure irakurleak Gabonetako loteria erosteko

eta zenbat diru gastetako asmoa daukien jakin gura dogu. Itauna, beraz, hauxe da:

Zenbat diru gastauko dozu Gabonetako loterian?

Eta erantzunak honeexek:

- ez dot dirurik jotatzen.
- 40 euro baino gutxiago.
- 40 eta 80 euro artean.
- 80 euro baino gehiago.

IGORRE

Beharbide enplegu proiektuak ikastaro bi abiatu ditu**Erredakzioa**

Beharbide Igorreko Enplegu proiektuaren barruan, zemen- dian ikastaro bi hasi ziran Igorren, Lanbide eta Igorreko Udalak finanziauta. Ikastarook Giza baliabideen gestinoa, diplomau eta lizentziatuai zuzendutakoa, eta teknikari administratibo-komertzialak, lanbide heziketakoai zuzendutakoak dira.

Ikastaro bietako ikasleak, amaitu ondoren, praktikak egin ahal izango dabez Igorren eta inguruetako enpresetan. Beharbide taldekoak enpresak hartu-emonetan ipini dira, partaide guztiak gelan ikasitakoa praktikan ipinteko aukerea eukiteko.

Beharbide proiektuaren barruan, prestakuntza, orientazio eta enplegu arloko ekintzak egi- ten dabez.

ARRATIA

Arratiako familien % 40k materia organikoa "egoki" kudeatzen dau**Erredakzioa**

Etoko konpostajea eta edukiontzi marroiaren erabilpena sustatzeko kanpaina aurrera doa, eta, Arratiako Udalen Mankomunidadeak emondako datuen arabera, momentuz, 120 personak izena emon dabe eteko konpostajerako eta ia ehun lagunek edukiontzi marroi- rako. "Datu honeekaz, aurtengo helburuak beteteko bide onean gabiz. Guztira, Arratian 2.600 familia inguruk modu baten edo bestean materia organikoa modu egokian kudeatzen dabe edo laster egingo dabe. Honek, Arratiako familia kopuruaren % 40 baino gehiago suposatzen dau" azaldu dau Aitor Uriguen AUMeko Ingurumen teknikariak.

Etoko konpostajea egi- ten ez dabenak, baratze- ake materia organikoa ondo kudeatzeko badaukie beste aukera bat: inausketa hondarrak, hostoak, landareak eta bedarra Garbigunera eroate, hain zuzen.

ZEBERIO

Herritarren udalagazko hizkuntza ohiturak neurtu dabez Zeberion

Udalak euskerearen neurketea egin dau.

Erredakzioa

2014ko maiatzean eta urrietan, Zeberioko Udalean neurketa bat egin eben herritarrak udalagaz dituen hizkuntza-ohiturak identifikatu eta euskerazko hartu- emonak handituteko asmoagaz. Neurketa bi egin ditue, bata agoz- ko hartu-emonetan eta bestea idatzizkoetan.

Agozko hartu-emonai jagokien neurketea maiatzean egin zan. Guztira berrehun alkarrizketa neurtu ziran, erdiak telefonoz eta beste erdiak udalean bertan izan- dakoak.

Telefonoz, herritarren % 67k egin eban euskeraz eta udalean bertan izandako alkarrizketen % 70 euskeraz izan ziran.

Datu honeen aurrean, Zeberioko Udalak balorazio ona egi- ten dau. "Zeberion dagoan euskaldun kopurua kontuan har- tu ezker, jasotako emoitza- k nahiko baikorrak dirala esan gein- ke, hobetuteko tarte- a beti dagoan arren" dioe. Herrian % 70,5 dira euskaldunak eta % 18,3 ia eus- kaldunak.

Idatziz euskera gitxi

Zeberioko alkate Ana Belen Alberdiren ustez, edadeko euskaldun alfabetatu bako asko egotea izan daiteke idatzizko produktinoa hain txikia izateko arrazoia. Neurketea urri bigarren-ean egin zan eta 11 idatzi jaso ziran neurke- tea egindako epean. Herritarrak euskeraz aurkeztutako idatziak % 45,5 izan ziran.

Hurrengo neurketea 2015eko

lehenengo hiruhilekoan egingo da, herritarren hizkuntza ohiture- tan aldaketarik egon dan ikusi eta aztertuteko asmoz. Bigarren honetan datuak zehaztasun gehia- goz jasoteko asmoa daukie, adin- tarteak, sexua eta abar zehaztuta.

Erabilera normalizetako plana

Zeberioko Udalak, euskerearen erabilera normalizetako behar- rean jarraituko daua dino. Adin tarte eta herritarren hizkuntza pro- fil desbardinak kontuan izanda, gazteak udalagaz euskerazko idat- zizko hartu-emonak handituteko kanpaina egingo dau 2015ean beste egitasmo batzuen artean.

Bi eta hiru urte bitarteko umeen guraso euskaldun edo ia euskaldu- nai tailerrak eskeiniko deusez euren egunerokotasunean euskerearen erabilera handituteko. Guraso erdaldunai, barriz, euskerea eteko- ratzeko tailerrak eskeiniko deusez.

Euskerea sozializetako urteko plangintza, herriko gaztetxeoakaz lankidetzan egingo dau Udalak, Lehen Hezkuntzako umeen ar- tean aisialdian euskerea susta- tzeari begira. Bertan, ze egunetan egingo diran jarduerak zehaztuko da.

Gazteak udalagazko euskerazko idatzizko hartu-emonak sendo- tuteko asmoa daukie Zeberion. "Ikusita gazteena dala egun eus- keraz idatziz jarduteko trebatuen dagoan adin tarte- a, 2015ean adin tarte honengan eragitea aurreikusten da, hainbat euskarri erabiliz: diptikoak, kartelak, gutun personalizauak...".

IGORRE



Enpresetako ordezkariak hiztegiaren aurkezpenean.

BATZ eta automozino sektoreko beste 5 enpresek Elhuyar Fundazioagaz batera Automobilgintza Hiztegia sortu dabe

Erredakzioa

BATZ, Cikautxo, Ekin, Elay, GKN eta Maier enpresak, Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia terminologia-adi-tuen aholkularitzapean, Automobilgintza Hiztegi espezializaua osatu dabe, sei hizkuntzatan: ingelesa, gaztelania, euskera, frantsesa, alemaniera eta txinera. Automobilgintzako 2.637 kontzeptu biltzean ditu hiztegiak, 16 alorretan sailkatuak, eta Interneten konsultau daiteke oso-osorik.

Atzen urteotan, globalizazioaren aroak bultzatuta, automobilgintzako enpresak nazioarteko merkatura egin dabe saltoa, eta "nazioartean izan dogun eta izaten gabizen esperientziak erakusten deusku lehiakorrek izateko ezinbestekoa dala hizkuntzak egoki kudeatzea eta terminologia espezializaua eta bateratua

erabiltea", adierazo dau Karmelo Uriarte BATZeko ordezkariak. "Komunikazio eraginkorra izan gura badogu beharreko prozesuetan, bezero eta hornitzaileakazko hartu-emonetan eta beharginen arteko hartu-emonetan, hizkuntza-hesiak gainditzea da lehen pausoa. Eta hori lortzeako, hiztegi espezializau hau egiteko beharra ikusi genduan", erantsi dau Uriartek.

Sei enpresak Elhuyarren esku itxi dabez euren eguneroko beharrean erabilten dabezan dokumentazioa eta barne-hiztegiak. Dokumentazio horretatik abiatuz, terminoen erauzketa automatikoa egin dabe, eta, holan, sei enpresetako terminologia erlazionetea lortu. Terminoa kontzeptuak antolatu dabez, sei hizkuntzetako ordainak emon, eta kontzeptu bakotxa jaigokan arloan sailkatu.

ZEANURI

LOMCE ezarrita, eginbideak aztertu ditue



Zeanuriko berbaldiko parte-hartzaileak.

Erredakzioa

Zemendiaren 20an, Rut Martinez, EAJ-PNVko senataria eta Zeanuriko hezkuntza zinegotzia; Jabi Lamadrid, Zeanuriko eskolako zuzendaria; Mertxe Nabaridas LAB sindikatuko eta Aitor Idigoras STEE-EILAS sindikatukoak, LOMCEk zelan eragiten dauan hezkuntzan izan eben berba. Publikoa osatu eben legearen eragina gehien sentidu dabenak: gurasoak eta irakasleak. Izan be, legea ezarrita, "zer gertatu daiteke gure seme-alabakaz?" zan kezka nagusia.

Aurten, LOMCE Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailan, eta Lanbide Heziketan hasi da apliketan. LOMCEren eragina ahalik eta txiki-na izan daiten, Zeanuriko eskolan lege babesa daukien ebatzi batzuk hartu dabez. Izan be, Klaustroa eta Eskola Kontseilua ebatziak hartuteko organoak dira. Zeanuriko eskolako kasuan, ikuskariak zergaitik egin dan gauza bat arrazoitu jakonean, onartu egin dau, Jabi Lamadrid Zeanuriko Eskolako zuzendariaren esanetan.

Esate baterako, Natur Zientziak eta Giza Zientziak batera irakasten dabez orain arte, Ingurumen ikasgaien egin daben moduan, nahiz

eta ordutegietan eta aktetan bananduta ipini behar. Erlinjioaren orde, hezkuntza jardueraz antolatutako programazioa daukie eta konpetentzietan oinarritutako metodologia erabilten jarraitzea ebatzi dabe.

Hezkuntz ibilbideetan aldaketak

Legearen gaineko informazioa emon eban Rut Martinezek. "Lege politiko bat da, PPre programan etori zana" esan eban. Legeak eragina dauka batez be, hizkuntzan eta hezkuntz ibilbideetan. Umeak oso goiz ebatzi behar dabe nondik jo eta "azkarrak" eta "ikasteko balio ez dabenak" bereizten ditu. Lanbide Heziketak aspaldi itxi eutsan bigarren mailako heziketa izateari eta ibilbide garrantzitsua bihurtu da gurean. Erkidegoan, Oinarritzko Lanbide Heziketa eginda gero, ikasle gehienak kualifikazioa lortu eta ikasten jarraituten dabe, baina LOMCEk egin dauan aldaketakaz Lanbide Heziketak kalidadea eta prestigioa galduko dau Martinezen eretxian.

Beste arazo bat, ebaluazioak dira. Kanpoko ebaluazioak egongo dira eta horreek gaindituteko kurikulumak egokitu dabez zentro askotan.

LABeko Mertxe Nabaridasen

arabera, lege hau PISA moduko azterketetan, Espainiak oso emoitza txarrak ateraten ditualako ezarri da, baina Erkidegoan "ez jakogu: Europan 2020rako hezkuntza helburuak, lortuta daukaguz eta".

Lege hau apliketan hasi ezker, gero ezingo dala gelditu esan eban LABekoak. Honen arabera, legearen gauzarik txarrenak dira: segregazio goiztiarra, eduki adoktrinatuak eta Madriletik egindako kanpoko ebaluazioak, kanpoko helburuakaz.

Datu eta data esanguratsuak

2013ko abenduaren 30ean, martxan ipini zan legea.

2014ko martiaren 1ean, Lehen Hezkuntzako kurrikulum dekretua argitaratu zan.

2014ko bagilearen amaieran, Eusko Jauriritzak 2014-2015 ikasturte hasikerako ebazpena bialdu eban, lege aldaketak martxan ipinteko urri lehenengoan.

2014ko urri lehenengoaren amaieran, Eusko Jauriritzak "balio sozial eta zibikoak" aurkeztu ebazan.

2014ko urri bigarrenaren 27an, kurrikulum dekretuen zirriborroak aurkeztu ebazan.


LOMCE hiru urtetan ezartzeak 964 miloe euro balioko ditu. Horretatik 49 miloe EAERI jagokoz.

**belagorri**
mediku naturista Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
argaltzeko terapia 94 600 21 12 - 94 600 87 56
kosmetika naturala L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
elikagai biologikoak L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
zelakoentzati elikagaiak 94 631 14 39
estetiziana

ilea apaintzeko eta kosmetika produktuak
**Kukumiku**
Sabino Arana 1 - Tel 94 685 26 38 IGORRE

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

**Olaetxe**
Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORÍA Gorbeialde**
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARANTZARTE

Arantzarte jantza taldea: 40 urte eta gazte

Bizirik dirau Franco hil baino lehen sortutako Arantzarte jantza taldeak. Bizirik eta osasuntsu, sasoiari egokitzen jakin dau taldeak eta jantzari gazteak dagoz bertan.

Orain 15 bat urte, jantzak beste modu baten aurkezten hasi ziran Arantzarten: kontakizun baten harian, ikuskizun baten barruan jantza zatiak sartzean, emondako musika bateri koreografia ipinten, eta abar. Hori dala-eta, publiko handia erakarten dau gaur egun eta Arratian zein Arratiatik kanpo erakusten dabez euren jantza eta montajeak.



Iraia Inunziaga eta Andoni Ariznabarreta.

Erredakzioa

Abenduaren 13an urteurren jaia ospatuko dau Igorreko jantza talde honek. 40 urte beteten ditu. Egundako jaia izango da eta bazkaria Kiñu Gaztetxean egingo dabe taldekoak, taldean ibilitakoak eta eurek bazkaldu gura daben guztiak. Bazkarirako txartelak hilaren 5era arte dagoz salgai Gau Loran eta Herriko Tabernan. Abenduaren 21ean Bilboko Txistilarien Banda egongo da Kultur Etxean eta abenduaren 27an, barriz, jantza saioa eskeiniko dabe Arantzartekoak frontoian.

Hasikerako urteak, gatzak

Arantzarte jantza taldea 1974an sortu zan Arantzazun, maiatzean. Jantzen irakaskuntzan hutsune bat ikusten eben Juanti Menika eta beste jantzari gazte batzuk, sasoi haretan Arratian. Igorren Beti Bizkor taldea egoan, baina apur bat makal. Konponbidearen bila, batzar bat egin eben Artea eta Arantzazuko gazte batzuk eta talde bat sortzea ebatzi. Jente gehiena Arantzazukoa eta Arteako zan eta hortik Arantzarte izena. Sasoi latza zan: taldea sortu eta urte eta erdigarrenean hil zan Franco. Arantzarte -arantza ar-

tean- esangureak emoten deutso zentzua izenari, Juanti Menika taldearen sortzaileak BEGITURI aspaldi azaldu eutsanaren arabera.

Talde sortu eta ikastetxe baten hasi zan ensaioak egiten, Artean. Lehenengo urteetan ikastetxez ikastetxe ibili ziran leku egoki baten bila, Igorreko Kultur Etxea egin eben arte. Harrezkerotik hor egiten dabez ensaioak aste-lehen eta barikuetan. Umeak be beste ensaio egun bi daukiez eta herritar guztiak zabalik dagozan ikastaroak be eskeintzen dabez Arantzartekoak Igorren.

Hasikeran ondo hasi arren, behar-kada bat be bizi izan eban Arantzartek hainbat urtetan: publikoa urrundu egin zan eta jantzariak gitxitu. Baina 25. urtean, hausnarketea egin eta aldaketa batzuk egin ebezan taldekoak.

Gaur egun, ia 40 personako talde bat osotuten dabe taldeko jantzari eta musikariak. Eta asko dira euren ikastaroetan jantzan egiten ikasten daben herritarrak.

Errepertorio ugaria eta nazi-noarteko hartu-emonak

Euskal Herri osoko errepertorioa dauka Arantzartek. "Juanti Menikak transmitiduten deusku errepertorio hori. Bizitza osoan



eta leku askotan ibili da jantzan eta berak erakusten deusku" dino Andoni Ariznabarreta Arantzarteko jantzari gazteak. Dana dala, errepertorioa aldatu egin dabe atzenenengo urteetan, jentearen interesa berreskuratuteko. Errepertorioa aldatu bakarrik ez, modu desbardinean aurkezten dabez betiko jantza tradizionalak.

Jantzok tradizionalak izan arren, taldea ez dala bape be tradizionala pentsetan dau Iraia Inunziaga jantzariak. "Mutilen jantzak mutilak, eta neskek nesken jantzak ez doguz egiten. Esate baterako, urrietan Durangon egon gara eta Kaxarranka jantzea egin dogu. Normalean mutil batek egiten dau jantza hau, ba guk aldatu egin dogu eta neska batek egin dau".

Koreografia barriak be sortzean dabez Arantzartekoak. Aspaldi ez dala, Durangotik deitu eutseen txistu bandak egindako pieza bateri koreografia bat ipinteko. Ipuinen edo beste edozein kontakizun edo ikuskizunetako jantza barriak be sortuten dabez. Baina beti be "gure esentzia mantenduta" dino Inunziagak.

Munduko jantza taldeakaz kon-

taktuan ipini eta euren herrietara joaten dira jantzara Arratiakoak: Poloniara, Frantziara, Portugale-ara... Urtero-urtero biaje bat. Atzena Italiara izan da. Eta topaketak be antolatu izan dabez Igorren, beste herrialde batzuetako jantza taldeak bertara ekarrita.

Taldearentzat aberasgarria da eta taldekideentzat beste leku batzuk, beste kultura batzuk eta jentea ezetuteko aukerea.

Mutil gitxi jantza taldeetan

Arantzartek 40 urte bete ditu aurten eta jente barria erakarten jarraituten dau. Aurten, kasurako, Iraia Inunziaga eta Andoni Ariznabarreta sartu dira. Ikastaroetan ibilita eta euskal jantza gustua hartuta sartzean dira asko taldean. Ikastaroetan edade guztietako jentea egoten da eta horreetako batzuk taldean sartzeako pausua emoten dabe. Holan egin eban Iraia Inunziagak be. "Txikitant euskal jantzak ikasten ibili nintzan eta orain dala urte batzuk hasi nintzan ikastaro baten eta taldean sartzerantz animau nintzan".

Ume taldeak be baditu Arantzartek. Izan be, umeak zaletu ezkeru, taldearen harrobia egon daiteke hor. Baina taldeak ikusita arazo bat aurreikusten dabe jantza taldekoak, sano mutil gitxi dagozalako umeen taldeetan.

Sasoi baten, Euskal herrian mutilak egiten eben jantzan neskek baino gehiago. Gaur egun, mutikoak jantzan hasten diranean, eskolan jantzan egitea "neskena" dala esaten deutsee eta batzuek

Jente gehiena

Arantzazukoa eta

Arteako zan eta hortik

Arantzarte izena

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Arantzazuko Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Arantzaz

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Mezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Mezkuntza, Batxilergoak, Mezkuntza zikloak

itxi be egiten dabe. Mutil gitxi animetan dira gaur egun. Taldea dana dala, nahiko moderna da horretan eta danak egiten dabela jantzan holango bereizketa barik dinoe. Ez dagoz nesken jantzak eta mutilen jantzak. "Jantzak ez dauka sexuen arteko mugarik. Zergaitik mutilak ala neskak? Danok egiten dogu jantzan eta hori da politena" dino Inuntziagak.

Bilboko Udal Txistularien Banda
Arantzartek bere 40. urteurrena ospatuko dau herritarraz batera abenduaren 13an urteurren jaietan eta hilaren 27an jantza saioa es-

keiniko dabe frontoian. Urteurren hau Bilboko Udal Txistularien Bandak be ospatu gura dau eta Plazan CDa aurkeztuko dau hilaren 21ean Kultur Etxean.

Txistua betidanik izan da plaza-rako musikea ipini dauana. Zorionez errepertorio zabala daukagu: fandangoa, arin-arina, tangoa, pasodoblea, polka, baltsa... eta Plazan CD honetan, hau ikusi egiten da, dino Asier Garcia Bilboko Udal Txistularien Bandako aretaztarrak.

Arkaitz Pascuas, Nagore de las Heras, Cristina Ruiz de Gopegi eta Patxi Labordak egingo dabe jantzan.



4 URTEURREN JAIA

arantzarte

dantza taldea

2014ko Abenduaren 13an

12:00 Herri kalejira pintxo jantza poteoa
FOLK & FIRE taldegaz eta Fasio, Maurizia eta Leon erraldoiakaz

15:00 BAZKARIA
Igorreko Kiñu gaztetxean
(sarrerak Gau Loran eta Herrikoan salgai)
Azken egune abenduaren 5a

17:00 "Abesti eta dantza herrikoiak"
Arantzarteko musika taldeagaz.

19:00 Kantu pintxo poteoa "Nafarroa kanta taldeagaz".

22:00 Kontzertua MG (Gaztetxean)
Ostean jaiak Igorreko tabernetatik segiduko dau

Abenduak 21

19:00 Bilboko udal txistu banda (Kultur Etxean)

Abenduak 27

18:00 Arantzarte dantza saioa
(Polikiroldegian)

Kolaboratzaileak

Igorreko Tabernak: Kukuma, Herriko, Kirirkiño, Ezkiña, Hegazkina, Berezi, Ikusgarri, A-Z, Gau Lora

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxes. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

ZIKLO-KROSA

Hiru arratiar Bizkaiko txapeldun

Erredakzinoa

Naia Alzola, elite andrazkoetan; Manu Quintanilla Master 40 kategorian eta Mikel Epalzak master 30ekoan, Bizkaiko titulua lortu eben zementariaren 30ean, Lezamako Ziklo-kros zirkuituan, hiru Bizkaiko txapel Arratiara ekarriz.

Lurraldeko tituluak jokatu ziran lasterketa honetan. Naia Alzola eta Aitor Hernandez dira Bizkaiko txapeldunak elite mailan.

Bigarren sartu zan helmugan Naia Alzola, Liemi Lekuona gipuzkoarren atzetik. Quintanilla eta Epalza be ez ziran lehenengoak izan helmugan, baina bai Bizkaiko lehenak.



Naia Alzola.

ERRUGBIA

Denporaldi hasikera ona

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek polito dabiz aurtengo denporaldian, orain arte, jokatu dabezan partiduetatik bi baino ez dabez galdu eta. Zemendiko atzen astegoienean Donostian jokatu eben Arratiko Zekorrek, Bera Bera RT Bren aurka. 18-18 izan zan markagailuak erakutsi eban emoitzea partidu amaieran Zekorrek ondo jokatu eben arren.

Zemendiaren 22an jokaturako neurketea galdu eben osteria Erorrio La Parra Tabernaren kontra San Txismeko zelaian. Neurketea nahiko bardindua izan zan eta Zekorrek lan bikaina egin eben puntuak kanpora joan ziran arren. Atzen emoitzea 20-28 izan zan.

Abenduko lehen astegoienean atsedena izango dabe Zekorrek, hurrengo norgehiagokea Gernika Bren kontra izango da Igorren.

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

begitu
arratia ubide zeberio

MOTORRAK

25 urte Zeanuriko enduro taldeak

Irati Urien

25 urte dira Zeanuriko Enduro Taldea sortu zala. Urtero lez, urteke-rea egin dabe aurten be. Hilaren 23an izan zan, eta hogeta hamazortzi motorzaletik gora batu ziran. Arratiako herrietakoak bakarrik ez, Gasteizekoak be hurreratu ziran. Goizeko 09:30ean urtenda, Zeanuri-Ubide-Oleta-Ubide-Saldropo-Zeanuri ibilbidea egin eben. Atzenengo urteetan Oletan armozetan dabe ohitura lez, Herriko Tabernan. Urteurrena ospatuteko kamisetak eta pegatinak egin dabez oraingoan. Arturo Sagarna eta Iñigo Sagarna zeanuriztarrek hasi ziran kontu honegaz, eta orain Pedro Sagarna euren anaia da ardura-duna. Beronen esanetan, aurrera



Zeanuriko taldekoak.

segiduteko gogo eta asmorik ez jarkie falta. Facebook kontua zabaldu barri dabe, bertan euren erretratu eta bideoak erakusteko.

GABONETAKO ZOZKETA

ARRATIAKO MERKATARIEN ELKARTEA

2014ko ABENDUAREN 26an

HIRU GABON OTZARA

	Aldeturriaga Oinetakoak Ebalde 20 94 631 57 11	HEGAZKIÑA Taberna Lehendakari Agirre, 25 626 21 17 49	MUGARRI Gerbe 2 94 631 51 03	KUKUMA Lehendakari Agirre 8 659 73 71 61	ARRATIA Informatika Bidebarri 2 94 631 98 10	Arratia Serv. Inmobiliarios Lehendakari Agirre 23 94 631 51 89
ARRATIA OPTIKA Lehendakari Agirre 12 94 631 57 11	ARRATEK Ebalde 2, behe 653 73 85 13	PUMUKYSS Olabarri 16 bajo 699 90 86 32	Asesoria Atutxa Gordoniz Sabino Arana 39 94 631 60 41	ATUTXA ANAIK Sabino Arana 38 94 631 57 16	AXULAR Kultur Elkarte Lehendakari Agirre 4 94 673 70 92	A.Z. RUGBY TABERNA Lehendakari Agirre 94 673 11 27 88
BEASKO Perfumeria Sabino Arana 13 94 673 68 10	BEATRIZ Fruteria Lehendakari Agirre 31bis 94 673 64 51	DONIBANE Olabarri 10 94 656 41 94	BELAUSTEGUI JOYEROS Ebalde 14 94 673 64 72	BIZKOR Kristaldegia Lehendakari Agirre 19 94 673 69 53	CANTABRICO Pescaderia Lehendakari Agirre 7 94 673 61 63	EZKUR Oinetakoak Lehendakari Agirre 14 94 673 62 24
DIA Autozerbitzu Sabino Arana 25 94 631 15 26	ZAZPI HAZETARA Lehendakari Agirre 11 635 75 00 97	EDURTZETA Janari denda Ebalde 32 94 673 61 25	BEREZI Taberna Lehendakari Agirre 23 94 602 02 03	ELIXABETE ILEAPANDEGIA Ebalde 4 Esku 94 631 91 03	ENAR KIROLAK Lehendakari Agirre 2 94 673 69 00	BODEGUILLA Gerbe 2, bajo 94 631 99 12
FELIPE GARAJE Gerbe 2 94 673 63 39	GALANTA MERTZERIE Lehendakari Agirre 23 94 631 90 08	GARANTXE Autoeskola Lehendakari Agirre 31 94 673 71 32	GAU LORA TABERNA Lehendakari Agirre 33 94 673 61 33	GOLOSKI Lehendakari Agirre 5 653 74 77 38	BIZARGINAK Ebalde 20 630 74 35 43	OLAETXE Optika zentroa Sabino Arana 3 94 657 70 03
IGORRE Decor y Pintura Bidebarri 1 ij esler 94 673 64 01	IGORRE GASOLINERA Lehendakari Agirre 18 94 673 60 13	IGORRE Fisioterapia Ebalde 4 94 631 55 08	+KE PAN IGORRE Lehendakari Agirre 11 94 608 90 47	ITARGI KAFETERIA Lehendakari Agirre 7 94 631 60 40	Izaskun Alvaro Estilistas Sabino Arana 13 94 631 52 66	JUBILATUEN TXOKOA Ebalde 33 94 673 71 11
KILI-KILI UMEEN DENDA Lehendakari Agirre 10 94 673 63 51	KENDALL Ebalde 4 94 657 73 48	KIRRU ILEAPANDEGIA Sabino Arana 38 behe 94 631 92 00	KUKUMIKU Sabino Arana 1, behe 94 685 28 38	KUTUNGORRI Sabino Arana 33 607 47 03 20	LARREA INMOBILIARIA Lehendakari Agirre 6 behe 94 631 80 04	LORANE BAZAR Lehendakari Agirre 13 94 656 14 25
MERKA- LABELA Janari denda Lehendakari Agirre 15 94 673 63 10	AINARA KIROLAK Lehendakari Agirre 19 94 631 57 05	ORRIE Lehendakari Agirre 7 94 673 64 75	PINO FRUTAS Gerbe 2A 615 79 43 40	IRATXO Olabarri 5 94 655 93 24	REKALDE HARATEGIA Sabino Arana 30 94 631 45 85	SEIN Lehendakari Agirre 31bis 94 631 92 96
SURYA Centro belleza Ebalde 23 behe 94 631 57 55	TORRES FONTANERIA Lehendakari Agirre 17 607 27 36 58	TXAPARRO IATETXEA Olabarri 17 94 631 53 81	VIAJES EQUADOR BIDAIK Ebalde 2 94 631 52 36	ARRATIA Autoeskola Gerbe 10 94 631 56 31	ZUZENBIDE Sgros y Asesoria Sabino Arana 3 94 673 91 41	

Sabadell Guipuzcoano

EUSKO JAURLARITZA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

MENDIA

San Kristobaleko Mendi Martxea Santa Lutzi jaietan

Erredakzioa


Abenduaren 14an izango da San Kristobaleko XII. Mendi Martxea. Ibilbideak 22,5 km. ditu eta izen emotea abenduaren 6a baino lehen egin behar da. Martxearen egunean ezin izango da izena emon. Martxearen ostean babajana egongo da.

Intxaurbizkar Kultur Elkarteak antolatuten dauan martxa hau uda partean egin izan da orain arte, baina ibilbidea Urkiolako Parketik zehar doa eta sai zuriaren babesala dala eta arazoak izan ditue. "Batzuetan ibilbidea be aldatu behar izan dogu. Arazorik ez eukiteko, Santa Lutzi jaiak aprobetxatu gura izan doguz, ea jentea etortzen animetan dan" azaldu deutso

BEGITURI Edorta Zurinaga antolakuntzakoak. Izan be, santu biren izenpeko ermitea da auzuneko, Elgetzuko Santa Lutzia eta San Kristobal ermitea hain zuzen be. Igaz, 178 ibiltarik egin eben martxa hau.

Izen emotea

Izen emotea abenduaren 6a baino lehenago egin behar da Banco Sabadell Guipuzcoanoko kontuan. Martxa bakarrik parte hartu gura izan ezker 5 euro pagau behar da, martxea eta babajana egin gura dabenak, 10 euro pagauko dabez. Martxearen egunean, 08:00retan banku agiriak aurkeztu eta 08:30ean abiatuko dira ibiltariak. Bazkaria 14:00etan izango da.



Martxearen mapea.

FUTBOLA

Irabazi, bardindu eta galdu

Ainhoa Duñabeitia

Arratia futbol taldearen gizonzkoen lehen taldeak zementuaren 30ean jokatu atzen partiduan bardinketea lortu eban etxean Abadiñoren kontra. Maila ona erakutsi eben gureak, ondo jokatu eben partidu osoan bardinketea baino lortu ez baeben arren. Banako bardinketeagaz amaitu zan partidua. Hurrengo neurketea Ugeragaren kontra izango da hilaren 6an.

Andrazkoen lehen taldeak oster

garaipena lortu eban zementu atzen astegoienean jokatu atzen partiduan. 2 eta 1 irabazi eban Arratiak Tolosaren kontra. Saikapeneko 5. postuan dagoz. Hurrengo partiduan 3. postuan dagoan Eibarrerri egin beharko deusie aurre.

Gizonzkoen bigarren taldea saikapeneko hirugarren postuan dago, zementu atzen astegoieneko norgehiagokan puntuirik lortu ez baeben be. Etxetik kanpo izan eben neurketea Derioren kontra. Derio 1, Arratia B 0 izan zan emoitzea.



ZIKLO-KROSA

Federazino Kopako probetako bat izango da aurten Igorreko Ziklo-krosa

Hilaren 7an izango da Igorreko XXXVIII. Ziklo-krosa. Olabarriko zirkuituan inoz baino ziklo-krosari gehiago espero dabe antolatzaileak, 490 guztira. Federazino Kopako lasterketea eta Euskadi Sari Nagusia izango da aurten Igorreko Ziklo-krosa. Arratiako Ziklista Elkarteak (AZE) antolatuten dau proba hau Igorreko Udala eta beste babesle askoren laguntzeagaz.

Erredakzioa

Goizeko bederatziretan hasita eta ordu biak aldera arte, kategoria guztietako ziklo-krosariak neurtuko dira Igorren. Federazino Kopako -lehen Espainiako Kopapuntuagarria da lasterketa hau. Guztira hamar probak osotuten dabe eta Igorrekoa zortzigarrena da. Ia bostehun partaideren artean, Naia Alzola, Aitor Hernandez, Kevin Suarez eta sortu barri dan Murias taldeko hiru txirindulari be egongo dira Olabarriko zirkuituan.

Proba nagusiak 11:45ean eta 12:45ean izango dira. 12:45ean, 23 urte arteko eta Elite gizonak urtengo dabe; 11:45ean, barriz, Junior gizonzkoak, Junior andrazkoak, 23 urte arteko andrak eta Elite andren lasterteketak izango dira.

Urtekerak propiorik ez andrak

Federazino Kopa honetan "berrogetaka andra dabiz parte hartzean eta ideala izango litzateke eurentzat karrera bat egitea, baina ondino ez da lortu separazino hori egitea" dino Juan Mari Zurinaga AZEko presidentea. Horixe eskatu eutsan Naia Alzola Dimako ziklo-krosariak Igorreko Ziklo-kroseko antolakuntzeari. Izan be, ziklo-krosean andrazkoen urtekerak propioa izateko eta sari bardinak jasoteko kanpaina bat abiatu dau Dimakoak. Aurten oster ez da holan izango Igorreko Ziklo-krosean. AZEko presidentearan arabera, urtekerak propio bat iza-



Igorreko Ziklo-krosa.

Argazkia: Ibon Maguregi.

teko ziklo-krosari gehiago behar dira, "ea datorren urterako egiten dan andrazkoentzako kategoria bakarra" dino.

Nazinoarteko mailari ezin izan deutso eutsi Igorreko Ziklo-krosak

2011ra arte, Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopako proba zan. Atzen urteetan, kategoria mantenduteko behar eban aurrekontua ezin izan eben eskuratu eta Erroman egiten da orain proba hau. Munduko Kopan egon ez arren, igaz B kategoriako nazinoarteko proba zan. Dana dala, finantziazino arazoak eukiten jarraituten eban eta igaz Zurinagak aurrekusi legez, aurten ezin izan deutso eutsi nazinoarteko mailari.

"Nazinoartekoa izanda, bakar-bakarrik permisoakaitik 5.000 euro gehiago gastetan zan. Hori diruori ez dogu gastau aurten, ez dalako nazinoartekoa" dino.

Dana dala eta aurreko urteetako beste babesleen laguntzeagaz gainera, aurten, Muriasek be lagundu dau Igorreko Ziklo-krosa eta antolatzaileak ez dira aurreko urteetan bezain estu eta larri ibili diru kontuak dirala eta. Hori dala eta, Olabarriko zirkuitura doban sartu ahal izango dira zaletuak abenduaren 7an, lasterketak hurretik ikusteko. ETBn edo interneten be ikusteko ere egongo da.

Ordutegia

09:00etan, Master 40, Master 50 eta Master 60.

09:50ean, Master 30.

10:40ean, Kadeteak mutilak eta neskek.

11:20an, sari banaketea.

11:45ean, Junior mutilak, Junior neskek, 23 urte arteko andrak eta Elite andrak.

12:45ean, 23 urte arteko gizonak eta Elite gizonak.

14:00etan, sari banaketea.

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 Bejo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

SESOREAK
basolo Emaid
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

umeen mada
sem
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmodu@hotmail.com

AKKB

**Jon Kortazar
Julio Cortazarren
gainean Areatzan**

Erredakzinoa

Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak antolatuta, abenduaren 11n, Jon Kortazar idazleak berba egingo dau Julio Cortazar (1914-1984) Argentinako idazlearen gainean, bere jaiotzearen 100 urte beteten diranean. Hori dala eta, Cortazarren liburu bi *Rayuela* eta *Los Relatos 1, Ritos* zozketatu ebazan AKKB-k zemendian. Abenduko gaia literatura izango da.

Julio Cortazarren aitita Ea herritik joan zan Ameriketara. Haren nondik norakoak Jon Kortazarrek aurkitu ebazan eta Julio Cortazarren bari emongo dau berbaldian. Cortazarren aititaren bizitza guztiz ezezaguna zala bere biografoentzat azaldu dabe AKKB-koak.

Liburu trukea

Hilean behin, bookcrossing-a egiteko asmoa daukie. Liburuak edadearen araberako guneeetan egongo dira. "Umee-na eskoleagaz koordinauko dogu, ahal daben umeak ipuin bat sikeran eroan eta aldatuteko. Nagusienak, tabemetan itxiko doguz, honetarako tabemariakaz berba egingo dogu" dino Asier Garcia AKKB-koak. Irakurritako liburu bat txoko baten itzea beste batek hartu dagian, eta norberak beste batek itxitako liburu hartzea da bookcrossing-a. Hilaren 12an egingo da.

LEHIAKETE

Kalidade oneko lanak Arratiako Beldur Barik-en



Erredakzinoa

Zemendiaren 28an Beldur Barik Arratian Lehiaketako sariak banandu ziran Bediako liburutegian. Arratiako sei lan egon dira lehian, lehenengo kategoriako 2 eta bigarren kategoriako 4, maila onekoak bertaratutakoak konprobau eben moduan. Lehiaketea Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak antolatu dau gazteen artean andrazkoen kontrako indarkeria prebeniduteko.

Aurtengo lehenengo kategoriako irabazlea *Gura doten mo-*

duan, gura dotenagaz izenburua daukan lana izan da, Igorreko talde batek egindakoa. Bigarren kategorian, barriz, saria Bediara eroan dabe *Apur ditzagun mugak* bideoaren egileak.

DJ ikastarokoak musikea ipinten

Sariak Josune Gorospe, Arratiako Udalen Mankomunitateko presidenteak eta Aitor Sorriketa Bediako alkateak emon ebazan. Sari-banaketan, DJ ikastaroan parte hartu eben gazteak egon ziran musikea ipinten.



KONPOSTAJEAGAZDANANDOOA

ETXEKO KONPOSTAJEAREN FORMAKUNTZA SAIOAK

ABENDUAN

	9	10	11	12	13
	Martitzena	Eguaztena	Eguena	Barikua	Zapatua
	DIMA Jubilatu Etxean	AREATZA Udaletxean	ARTEA Ludotekan	LEMOA Jubilatu gaineko aretoan	IGORRE Jubilatu Etxean
	18:30	18:30	19:00	18:30	10:00
15	16	17	18		
Astelehena	Martitzena	Eguaztena	Eguena		
ZEANURI Udaletxean	BEDIA Liburutegian	ARANTZAZU Multiusos lokalean	IGORRE Jubilatu Etxean		
18:30	18:30	18:30	11:00		
			IGORRE Mankomunitatean		
			18:30		

**ETORRI
ZAITEZ ETA
MATERIALEAK
HARTU!!!!**

Informazioa eta zalantzak:
946 311 717

IKUSKIZUNA

Jainko txiki eta jostalari hura Lasarte Aretoan

Erredakzioa


Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal musikariak eta Mikel Valverde artista plastikoa, *Jainko txiki eta jostalari hura* deritxan lanerako. Arte mota honek konbinatuz, ikuskizun indartsu, eder eta liluragarria sortu dabela dinoe kritikoak.

Kirmen Uribe idazlea, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal musikariak eta Mikel Valverde artista plastikoa, *Jainko txiki eta jostalari hura* deritxan lanerako. Arte mota honek konbinatuz, ikuskizun indartsu, eder eta liluragarria sortu dabela dinoe kritikoak.

CDa eta dokumentala

Zuzeneko emonaldiaz gainera, CDa eta dokumentala egin dabe egileak. Dokumentalak ordu bate irauten dau eta New York-en egindako bira dauka oinarri.

Zaharregia, txikiegia agian izeneko haretatik hamar urte pasau diranean, alkartu dira barriro



Mendizabal, Valverde, Rueda, Uribe eta Urdangarin.

BERTSOLARITZEA

Finalerako pasea lortzean saiatuko da Estiballes Amorebieta-Etxanon

Erredakzioa

Abenduaren 7an, 17:30ean jokatuko da Amorebieta-Etxanoko Zelaieta zentroko frontoian, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren finalurrekoa. Zeanurin bizi dan Arkaitz Estiballes egongo da bertan. Estiballesek ez dau kanporaketetan kantau, finalurrekoetara sailkatu da zuzenean, Bizkaiko txapeliduna dalako.

Garikoitz Sarriugarte, Ibon Aju-riagojeaskoa, Imanol Urija, Jone Urija eta Oihana Bartraren kontra neurtuko da. Irabazleak finalerako pasea lortuko dau eta besteak,

puntuazioaren arabera eukiko dabe finalera pasetako aukerea. Etxebarri eta Urdulizen jokatuko diran lehenengo bi finalurrekoetan Iratxe Ibarra eta Etxahun Lekue izan ziran garaile hurrengo hurrengo.

Bertsolariak finalurrekoetan egin behar daben beharra hauxe da: zortziko nagusian ofiziotan hiruna bertso, zortziko txikian ofiziotan be hiruna bertso, hamarreko txikian ofiziotan beste hiruna eta kartzelako lana: puntua emonda bertso bi zortziko txikian eta gai baten gainean bertso bi doinu eta neurri librean.

Finala Bilbao Arenan izango da hilaren 20an. Sarrerak www.bertsosale.eus webgunean erosi daitezke.



MUSIKEA

Heavy metala Zeberion

Erredakzioa

Heavy metal jaialdi bat antolatu dabe Zeberion, hilaren 12rako. Bertan, talde bik hartuko dabe parte: Zein da zein? eta Fear Crowd taldeak. Horrezaz gainera musika eta bideo heavy ugari egongo dira. Jaialdia 21:00etan hasiko da eta udal-lete aurrean izango da, Zubialden.

Roberto Callejak antolatu dau Zeberiometal, aurten bigarren bez. Zein da zein? eskarmentu handiko taldea egongo da bertan. Diskoa be badauka talde honek eta estiloaren aldetik metal eta rap doinuak bikain nahasten

dituela dino antolatzaileak. Zuzenean, gogorak bezain beroak dira eta igaz be jo eben jaialdi honetan. Joko dauan beste taldea Fear Crowd talde bilbotarra da, momentu honetako talderik garrantzitsuenetakoa heavy klasiko estiloan eta zuzeneko bikaina daukie, Leire Garcia abeslariaren gidaritzapean.

Jaialdiaren helburua ondo paseteaz gainera, musika estilo hau zabaldutea eta "musika taldeai lehiotxo bat zabaltzea" da. Igaz ehun lagun inguru bildu ziran Zein da zein? eta Solte taldeak entzuteko. "Urtean behin egiten

da eta udagoiena aukeratu neban ikusten nebalako Gabonak heldu baino lehenago jentea urteteko gogoz ebilela eta jaialdi batez gozatzeko, neguko lasturak arindu nahian edo. Dana dala, izan leiteke aukera bat udan be holangoko zerbaist antolatutea, zelango erantzuna daukan ikusteko" dino Callejak.

Udalaren laguntzeagaz

Aurten Zeberio Udalak diruz lagundu dau Zeberiometal jaia eta lokala eta materiala be ipini dau. Festibalaren beste diru iturriak, txosna eta kamiseten salmentea dira. "Lortuko dan diru guzti-guztia artista eta soinu teknikariarentzat izango da, hau da, irabazi asmo bako ekintzea da hau".

Sarrerea debaldekoa da.

DUNBA

Areatzako eskolako LH3ko ikasleak GASCAra joan ginan

Zemendiaren 6an, Areatzako, Zeberio eta Arrankudiagako LH3ko ikasleak Zornotzan dagoan GASCA janari enpresara joan ginan.

Areatzako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

GASCA, eskoletarako, egoitzetarako, lantegietarako eta ekitaldi desbardinertarako janaria prestatzen dauan enpresa da.

GASCA enpresara joan ginan, hiru eskoletako proiektua "Sukaldaritza" dalako eta hiru eskola honeetara janaria GASCATik datorrelako.

Lander eta Jon izeneko GASCAko beharginak gidatu eben

ikasleone bisitea eta dana azaldu euskuen. Galdera asko egin genduzan eta Landerrek eta Jonen galdera guztiak erantzun ebezan.

GASCA enpresa 1978. urtean sortu zan eta Zornotzan dagoan eraikina 2008an.

Zornotzako eraikinak 1550m² ditu (hiru futbol zelai beste) eta hiru solairutan bananduta dago: 1. sukalde dago, 2. biltegia eta 3. bulegoak dagoz.

1200 beharginek egiten dabe lan (sukaldariak, eskoletan



Areatza, Zeberio eta Arrankudiagako ikasleak GASCArean.



dagozan monitoreak, txoferrak, nutrizionistak, harakinak...).

Ikasleoi lantegia espero baino handiagoa iruditu jaku eta han ikusitako marmidak, zartaginak, janari kantidadeak, labeak... gure etxeetan baino tresneria handiagoa erabilten dabela konturatu gara.

Atzenez, hamaiketako ederra opatu euskuen.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Mantal, gonagain.
- 2.- Letra bat.
- 3.- Ona ez dana.
- 4.- Omen. Bokal bardina. Uranioa.
- 5.- Nondik atzikia. Galdetzaila.
- 6.- Atzen bokala. (Atz.) Birritan, nahi, asmo. Letra bera birritan.
- 7.- Eskumutur.
- 8.- Atxakia. Berrogeta hamar erromatar.
- 9.- Frakzioa.

GOITIK BEHERA

- 1.- Baretu, lasaitu. Gerundio atzikia.
- 2.- Letra bat. Hamabi erromatar.
- 3.- Ohartarazoteko interjekzioa. Lepondo, garondo.
- 4.- Zein lekutara. Mailu handi.
- 5.- Teink. (Atz.) Birritan, barre-algararen onomatopeia.
- 6.- Andrazkoen izena. Bizkaiko ibaia. Erdiko bokala.
- 7.- Musika nota.

V	I	K	I	V	Z	6	O	I	X	W	N	O	V	O
T	V	B	O	D	V	8	N	D	V	I	Z	I	A	
I	V	R	V	K	U	Z	O	A	N	I	V	R	O	N
K	K	O	O	P	9	M	I	D	O	O	I	V	S	
R	O	N	K	I	S	O	I	I	X	V	V	G	A	
U	V	V	E	I	4	M	I	N	I	O	S	V	V	
V	R	R	X	T	3	O	V	N	O	G	Z	V	V	
V	N	I	O	R	Z	P	I	I	X	X	O	I	I	
L	A	N	A	V	I	N	V	V	V	V	V	V	V	
7	1	2	3	4	5	6	R	V	O	X	V	V	V	

Topau literaturan umetxo eta gazteentzako ezagunak egin diran zazpi personajeren izenak.

E	S	I	R	E	N	A	T	X	O
S	A	R	A	T	X	O	G	A	R
T	O	P	O	X	A	S	A	G	U
I	R	K	I	A	N	E	R	I	A
E	D	U	R	N	E	Z	U	R	I
R	R	Z	Z	O	O	G	A	R	L
R	A	P	E	G	U	T	I	A	G
A	K	R	U	O	L	A	X	I	W
U	D	A	R	R	O	B	L	O	O
S	A	T	O	R	U	A	G	I	M
K	T	A	N	I	Z	T	O	K	A
I	X	T	O	T	U	A	X	R	D
N	O	R	A	X	I	M	E	O	N
E	T	Z	I	U	L	A	G	U	R
D	A	D	U	M	E	K	I	L	O

AKI MI KO

Zorrozkiilo



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia % PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3 48330 LEMOIA Bizkaia
Tel: 609 482 830 Fax: 609 290 717

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

AKEITEGIA GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN ONDASUN HIGIEZINEN ASIGURUTAN
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK INDUSKETAK GARRAIOAK UR SAREAK SANEAMENTU SAREAK BASERRI ETA BASOKO BIDEAK PABELLOAK URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozaku@euskalnet.net

JULENE RAMOS

"Ostalaritza eta nekazaritza behin-behineko enplegu gehien sortzean daben sektoreak dira"

Arratia eskualdeko lehenengo zentroa zabaldu dau Lanbidek Arratian. Barikuetan dago zabalik eta jentetxo pasau da bertatik. Artean, langabeak orientazioa eta arreta personalizatu jasoten hasi dira Areatzako Julene Ramos orientatzailearen eskutik. Hori dala eta, Arratiako enpleguaren errealidadearen zenbakiak ezetuteaz gainera, egoera hori bizi daben personak ezetuten hasi da.

Erredakzioa

Zabaldu dozuenetik jente asko pasau da Arteko zentrotik? Ze perfiletakoak da erabiltzailea eta zelan lagundu deusazue?

Enplegu zentroa zemendiaren 14ean zabaldu genduan, beraz hiru astetxo bakarrik daroa zabalik. Ha ta guztiz be, jentea etorten hasi da, momentuz gehienak enplegu zentroari buruzko informazioa eskatzen (zer dan, eskeintzen diran zerbitzuak...) Bestetik, beste persona batzuk Zornotzako enplegu zentroa ezetuten ebenez, honen funtzionamentua ezetuten dabe eta zuzenean zerbitzu konkretuak eskatzen etorri dira, esaterako; kurrikuluma egitera, enplegu bilaketea, formakuntzazko kursoen eta DBE, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko informazioa bila, orientazioa bila... Orain arte etorri diran personak 30 eta 50 urte bitartekoak izan dira, bai bertakoak eta bai atzerritarak.

Arteko enplegu zentroa barikuetan bakarrik dago zabalik. Pentsetan dot zeure enplegua be ordukoak eta behin-behinekoko izango dala. Jornada osoko lanik geratzen da Arra-

tian?

Danok dakigunez gaur egun bizi dogun errealidade oso latza da, langabezia tasak inoz baino altuagoak dira eta lana bilatzea oso gata bilakatu da. Gaur egun enplegua eskeintzen ehuneko garrantzitsu bat behin-behineko lanak beteten dabela egia da, baina gaur egun bizi dogun egoerara egokitzea tokatzen jaku. Gazteriarri jagokonez, behin-behinekoko edo orduko beharrak izateak, lan munduan sartzean garan bitartean formakuntzeagaz jarraitzea ahalbidetzen deusku. Bestalde, langabezia denpora luze batez egon diran personen lan munduratzeko apurka-apurka egin ahal izatea be erretzen dauala esan beharra dago.

Zein arlotan dago enplegu gehien? Eta kalidadeko enplegurik?

Ostalaritza eta nekazaritza behin-behineko enplegu gehien sortzean daben sektoreak dira gaur egun. Lan merkaduari buruzko atzen datuak dinoenez, Euskal Herriko enpresa aktiboen artean % 75a zerbitzuen sektoreak beteten dau, % 15a eraikuntzak eta % 8a industriak. Kontratazioari erreparatu, % 80 inguru zerbitzuen sektorean gauzatu

dira, % 8 industrian, % 4 eraikuntzan eta % 2 laborantzan. Industria sektoreen barruan, produktu metalikoen fabrikazioa, elikagaigintza eta metalurgia nabarmentzen dira. Eraikuntza oster, eraikuntza jardura espezializatuak eta eraikuntzen eraikuntzak. Eta lehen sektorean nabarmentzen diranak nekazaritza, ehiza eta honek erlazionatutako jarduerak dira.

Gaur egun gazteak eta andrak formazio handia daukie, (unibersidadeko ikasketak, pare bat master, lau edo bost hizkuntza...) eta ezinezkoa jakie beharra topetea. Zelan bideratzen dozue horreek? Zer egin behar dabe?

Gazte eta andra bakotzak egoera propio bat dauka eta errealidade honetatik abiatu behar dogu. Orientazio pertsonalizatu bat eskeini behar jakie eta horretarako beste aspektu askoren artean, bakotxaren alderdi indartsuenak aztertu behar doguz, norbere ibilbidea analizatu, enpleguaren bilaketan eragina daukien faktoreak identifikatu... eta oinarri honeetatik abiatuz helburu zehatzak ezarri. Beraz, norbere egoera partikularren azterketatik abiatu behar

gara lehenik eta behin.

Ze eragin izango dau Arteko zentroak enplegu tasetan? Aurkezpenean esan eben eraginkorra izatea dala zentro honen helburua. Neurtu egingo dira emoitak? Eta lortu ezean, indartu egingo da zerbitzua zelan edo halan?

Zerbitzuaren helburuetako bat erabiltzailei zerbitzu individualizatu eskeintzea da. Lana bilatze prozesuan dagozan personak baliabide desbardinak eskura ipinten jakiez; besteak beste, eguneroko prentsa, inguruko lan eskeintzak, tresna informatikoak... Eta honeen erabilera libre baten bidez, bilaketa aktibo bat egitea. Momentuz enplegu zen-

troak urteko deialdia dauka eta urte honetan lortzean diran emoitzen arabera jokatu beharko da. Horretarako, Lanbidek enplegu zentroaren eraginkortasuna neurtzeko dituan adierazleak arabera aztertuko ditu emoitak eta orduan ebatziak hartu. **Enpleguari jagokonean zelan baloretan dozu Arratiako egoera?**

Lanbideren estadistiken arabera, Arratian langabezia dagozan gehienak 30-45 urte bitarteko personak dira % 80 inguru, eta gazteen artean, langabezia tasak oso baxuak dira. Beste datu garrantzitsuetako bat sexuen arteko diferentziarena da, andren artean langabezia tasa altuagoa dala nabarmentzen da.



Hotel Areatza ★★★ Balneario

Oparia
topetan

Olentzerotarako?

Aukeratu gure
Opari bonoak

- * Logela bikoitza
- * Gosaria
- * Zirkuitu termala

56.00€tik aurrera
pertsona bakoitzeko
Bez barne

Informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705
Menu Bereziak zure ospakizunetarako.

Bazkaria+zirkuitua, masajeak,
hidromasajeak...